

HEZI+ horrela ez! Akordioa bete!

Gaur, otsailak 5, mobilizazioak egin dituzte Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasleek, pasa den urtarrilaren 30ean, STEILAS, LAB eta CCOO irakaskuntza sindikatuok egin genuen bezala. Modu horretan, gure **kezka eta desadostasuna** adierazi dugu HEZI+ proiektuaren planteamendu berriek dakartzaten ondorioengatik, ikuspegi pedagogikotik, antolakuntzatik eta, bereziki, irakasleen lan-baldintzetan izango duten eraginagatik. **Ikasleei eskaintzen zaizkien baliabide gehigarriak ezin dira langileen lan-baldintzak urratuz ezarri.**

Ikastetxeek gaur zeukaten azken eguna erantzunkidetasun-konpromisoa Hezkuntza Sailari bidaltzeko; horretarako, klaustroek proposamenaren balorazioa egin behar zuten, ondoren eskola-kontseiluak onarpena eman zezan.

STEILAS, LAB eta CCOO irakaskuntza sindikatuok bildutako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko gehien-gehienek haserrea eta desadostasuna adierazi dute, eta horietako askotan, klaustroek planto egin dute Hezkuntza Sailak aldebakarrez inposatu nahi duen Hezi+ programaren aurrean.

Bestalde, sindikatuon eta klaustroen presioari esker jakin izan dugu Hezkuntza Sailak epea martxoaren 5era arte luzatu diela ikastetxeei.

Agerikoa da irtenbidea ez dela epea luzatzea. Hezkuntza Sailari **xantaia-logikak eta inposizio jarrerak albo batera uzteko** eta HEZI+ ebazpenaren inguruko negoziazio prozesua irekitzeko eskatzen diogu, proiektuaren edukiak, helburuak eta baldintzak sindikatuarekin adostu ahal izateko, betiere 252/2025 Dekretua errespetatuz. Izan ere, akordio hori ez betetzeak ondorio legalak baititu.

STEILAS, LAB eta CCOO irakaskuntza sindikatuok **HEZI+ adostu baten alde** egiten dugu, hori izango baita hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bermatuko duena, lan-baldintzak errespetatuko dituen eta hezkuntza publikorako beharrezkoak diren baliabide nahikoak oinarri izango dituen.

STEILAS, LAB eta CCOO irakaskuntza sindikatuok ondoko eskaerak egiten dizkiogu Hezkuntza Sailari HEZI+ ebazpen berria adosteko:

1. **He-Indartuz ordu kopurua handitzea, ikastordu izaera bermatzea** eta proposamena ikastetxe eta ikasleen beharretara egokitzea.
2. **He-Hobetuz** neurrian eskainiko diren jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak handitzea eta ikastordu izaera bermatzea (17 ordu gehienez).
3. **He-Aberastuz:** irakastorduak eta jarduerak bermatzeko baliabidez hornitu.
4. **Bidelaguna** proiektua Hezi+ proiektuan **sartzeko aukera** izatea, He-Aberastuz neurrian agertzen den finantzaketaz baliatuz.

Hala, bilera-eskera egin genion urtarrilaren 27an Hezkuntza Sailari gure aldarrikapenak helarazteko, baina erantzunik jaso ez dugunez, urtarrilaren 30ean **Batzorde Paritarioaren** bilera otsailaren 9an egiteko deia **erregistratu** genuen, 11:00etan Lakuan, 252/2025 Dekretua 85. artikuluan jasotzen dituen eskumenak baliatuz. Aste honetan erantzuna jaso dugu Hezkuntza Sailaren partetik eta bilera batera deituak izango gara hurrengo asteetan egindako presioari esker.

Horregatik guztiagatik, **elkarretaratzeak egin ditugu gaur EAEko Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxe publikotan. Horrez gain, borrokan jarraituko dugu Hezkuntza Sailak lan-baldintzak errespetatuko dituen eta hezkuntza publikorako beharrezkoak diren baliabide nahikoak oinarri izango dituen HEZI+ proposatu arte, baita 2025eko maiatzean sinatutako akordioa osotasunean betetzeko ere.**

HEZI+ HORRELA EZ! AKORDIOA BETE!

